

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****URIZAHARREKO UDALA****Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2021eko ordainagiria kobratzea**

Nik, Juan José Betolaza Pinedok, Arabako Lurralde Historikoko Urizaharreko Udaleko alkate-lehendakariak, honako hau

Jakinarazten dut:

2021eko urriaren 1etik azaroaren 30 arte, biak barne, borondatezko epean ordaindu ahal izango dira landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak, nola udal honetakoak hala Pipaon, Urizaharra eta Las Rasas Erkidegokoak.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2021eko urriaren 29an kobratuko zaie.

Tasa horiek ordaindu behar izan eta ordainketa horiek inongo banketxetan helbideratuta ez dituztenek Kutxabanken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak. Horretarako, beharrezkoa izango da etxean jasoko duten ordainagiri abisua aurkeztea. Azaroa heldu eta ordainagiri abisurik jaso ez badute, Urizaharreko Udalaren idazkaritzan eskatu beharko dute.

Zergapekoei ohartarazten zaie komeni dela zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea.

Borondatezko epe hori igaro eta zorra ordaindu ez bada, premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera ordaindu gabeko kuotak kobratzeko, hala xedatzen baitute Zergen Foru Arau Orokorrak eta Dirubilketa Arautegi Orokorrak, eta dagokion errekaruarekin (ehuneko 10 edo ehuneko 20) kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Urizaharra, 2021eko irailaren 13a

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO*